

Año LVII. urtea

140 - 2025

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

**Hizkera-mailaren
araberako
ahoskera-aldakortasuna:
euskara ikasteko
modua aztergai**

Irati Urreta Elizegi

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LVII. urtea - N.º 140. zk. - 2025

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Eguraldiaz mintzatzea, kultur jarduera Kepa Diéguez Barahona	229
Exploring lexical diversity in Basque news: original vs. machine-translated texts Amaia Solaun Martínez, Nora Aranberri Monasterio	273
Mendigatzaren gutunetako <ss>: hautu grafikoaren jatorriaz Leyre Rojo Horrillo	317
Hizkuntza-errutinak: euskarazko ahozko oinarrizko komunikazioan trebatzeko ibilbidea Agurtzane Azpeitia Eizagirre, Olatz Bengoetxea Manterola, Idurre Alonso Amezua	349
Genero-alborapena Elia itzultzaile automatikoan, euskaratik gaztelaniarako norabidean Klara Ceberio Berger, Aitziber Elejalde, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Eneko Sagarzazu Martinez, Zuriñe Sanz-Villar, Naroa Zubillaga Gomez	383
Bigarren Hezkuntzan eskola-hizkuntza garatzeko diziplinarteko diseinu bat: kasu-azterketa bat Oihana Leonet, Olatz Lucas, Ane Lamarka	405
Intimitatearen idazketa Miren Agur Meaberen <i>Kristalezko begi bat</i> liburuan Elena Olave Duñabeitia	433
Hizkera-mailaren araberrako ahoskera-aldakortasuna: euskara ikasteko modua aztergai Irati Urreta Elizegi	451
Karmele Erraztiren iturriak euskal emakume-eredua eta olerkarien genealogia femeninoa eraikitzeko Enara San Juan Manso	479

Sumario / Aurkibidea

Euskarazko alfabetatze goiztiarra: dispositibo didaktikoen ezaugarritzea
eta sailkapena

Diego Egizabal Ollokiegi, Agurtzane Azpeitia Eizagirre, Arantza Ozaeta Elorza 505

VARIA

In memoriam. Koldo Artola Kortajarena (1938 – 2025)

Ekaitz Santazilia 543

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales /
Rules for the submission of originals

551

Hizkera-mailaren araberako ahoskera-aldakortasuna: euskara ikasteko modua aztergai

Variación en la pronunciación según los registros de habla: modo de aprender euskera

Pronunciation variation according to speech registers: mode of learning Basque

Irati Urreta Elizegi
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
irati.urreta@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0002-3181-4969>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv140.8>

Artikulu honetan agertzen diren eduki eta datuak 2025eko urtarrilean UPV/EHUKo Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean aurkeztutako doktoretza-tesiaren zati dira: *Euskararen ahoskera eta hizkera-mailak aztertzen*. Lan hura Eusko Jaurlaritzaren Doktoretza Aurreko Programako laguntzaren (2020 – 2024) babesarekin egin zen. Eskerrak eman nahiko nizkieke tesi-zuzendariei, Oroitz Jauregi eta Miren Lourdes Oñederriari, ikerlana egiteko eskainitako laguntzagatik. Era berean, eskerrak ikerlaneko parte hartzaile guztiei euren eskuzabaltasunagatik.

Jasotze data: 2025/04/10. Behin-behineko onartze data: 2025/12/09. Behin betiko onartze data: 2025/12/11.



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago.

LABURPENA

Artikulu honetan, euskararen ahoskeran hizkera-mailaren arabera izan daitekeen aldakortasuna da aztergai: euskara ikasteko moduak (etxean / ez etxean) aldakortasun horretan izan dezakeen eragina aztertzea da helburu. Horretarako, euskara etxean eta etxetik kanpo (irakaskuntza formalaren bidez) ikasitako Ikaztegieta eta Baigorriko zenbait hiztunen hizkera-maila arduragabeko eta zainduko ahoskerak bildu eta aztertu dira, Fonologia Naturala oinarri hartuta. Ondoriozta daiteke, oro har, euskara etxean ikasitako hiztunen hizkeran aldakortasun handiagoa dagoela, euskara etxean ikasi ez dutenenean baino. Alde horien arrazoen artean, besteak beste, aldaera estandarraren eta idatziaren eragina leudeke.

Gako hitzak: ahoskera; hizkera-mailak; aldakortasuna; euskara ikasteko modua; irakaskuntza.

RESUMEN

Este artículo analiza la variación en la pronunciación del euskera dependiendo del registro de habla, con el fin de examinar el impacto del modo de aprender la lengua en dicha variación. Se han recopilado y analizado, desde el enfoque de la Fonología Natural, muestras de pronunciación en registros informales y formales de hablantes de Ikaztegieta y Baigorri, que han aprendido euskera en el ámbito familiar o a través de la enseñanza formal. En general, los hablantes que han adquirido el euskera en casa presentan una mayor variación que aquellos que lo han aprendido en contextos formales. Entre las causas de esta diferencia destacan la influencia de la variedad estándar y del lenguaje escrito.

Palabras clave: pronunciación; registros de habla; variación; modo de aprender euskera; enseñanza.

ABSTRACT

This article examines variation in Basque pronunciation across different speech registers, focusing on how learning mode influences such variation. Speech samples in informal and formal registers were collected and analysed within the framework of Natural Phonology. The speakers were from Ikaztegieta and Baigorri and had acquired Basque either at home or through formal education. In general, those who learned Basque at home display greater variation than those who acquired it in formal educational contexts. Among the factors contributing to these differences, the influence of the standard variety and written language appears particularly significant.

Keywords: pronunciation; speech registers; variation; Basque learning mode; education.

1. SARRERA. 2. HIZKERA-MAILAK. 2.1. Hizkera-maila arduragabea eta zaindua. 2.2. Euskalkiak, euskara batua eta hizkera-mailak. 2.3. Irakaskuntza eta hizkera-mailen araberako aldakortasuna. 3. CORPUSA: HIZTUNEN AHOSKERAK AZTERTZEN. 3.1. Hitzunak. 3.2. Datuen bilketa eta azterketa. 4. EMAITZAK. 4.1. /ua/ bokal-bilkura. 4.2. Bokalarateko /b/, /d/, /g/, /t/ kontsonanteak. 5. AURRERA BEGIRAKO GOGOETAK. 6. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Hiztunaren hizkeran aldakortasuna izan daiteke egoeraren arabera; besteak beste, solaskidea, hizketagaia eta lekua zein den kontuan izanda, hiztunaren hizkera aldatu egin ohi da. Hizkuntza osasuntsuetan hiztunek eurek eratzen dute aldakortasun funtzionala; hau da, kanpoko esku-hartze baten beharrik gabe hiztunek zenbait hizkera erabiltzen dituzte egiteko edo egoera jakinetarako (Milroy, 1994, 21. or.). Euskaraz, ordea, hizkera-mailen araberako aldakortasun hori urria izan da, hizkuntza gutxitua izanik, soziologikoki murriztua izan baita urte askoan. Denbora-tarte luzean beste hizkuntza batzuek (gaztelaniak eta frantsesak gehienbat azkenaldian) bete dituzte euskararen barnean estandarrari legezkiokkeen esparruak (irakaskuntza, administrazioa eta hedabideak, besteak beste) eta euskara etxeko eta lagunarteko erabilere-tara mugatu izan da. Hizkera-maila formalagoetarako eredurik ez da sortu denbora luzean; hau da, ez da eratu hizkera jasorako eredu sendorik urte luzez, elizak eta bertsolariek erabilitako zenbait aldaera lirateke salbuespen nagusiak (Oñederra et al., 2015, 507. or.).

Hasiera batean behintzat, berariaz antolatu behar izan da aldakortasun funtzional hori. Euskara batuak lagundu du horretan, hiztunei hainbat egitegori erantzuteko baliabideak eman baitizkie. Ahoskeraren kasuan, ordea, gainerako hizkuntzetan ere ohikoa izaten den bezala (ikus Jauregi & Urreta, 2023), berandu etorri zen estandarizazioa (idatzia berarena baino geroago esan nahi da), lehen garaietan, euskara batua idatzirako proposatu baitzen (Euskaltzaindia, 1968, 250. or.). 1968an euskara batu idatzirako arauak plazaratu ziren, baina 1998ra arte ez zen ahoskorako ezer proposatu. Urte hartan atera zuen Euskaltzaindiak *Euskara batuaren ahoskera zaindua*

araua (EBAZ hemendik aurrera). EBAZ ahazko hizkera estandarrerako hiztun ororen erreferentzia tresna litzateke, hizkuntzaren maila jasoetan erabiltzekoa (Euskaltzaindia, 1998). Ahoskeraren estandarizazioa idatziarena baino geroago etorri izanak ekarri du, neurri batean, egun, idatzi estandarra aski finkatua eta hiztunen artean aski onartua den arren (ikus Hualde & Zuazo, 2007), ahoskeran oraindik asko geratzen dela egiteko.

Artikulu honetan, euskararen ahoskeran hizkera-mailaren arabera gertatzen den aldakortasuna izango da aztergai, Fonologia Naturalaren teoria oinarri hartuta (Donegan & Stampe, 1979, 2009; Stampe, 1979). Hain zuzen ere, hiztunek euskara ikasteko izan duten moduak (etxean edo etxetik kanpo, irakaskuntza formalaren bidez) hizkera-mailaren arabera ahoskera-aldakortasunean nola eragiten duen aztertuko da. Batez ere, bi profil horietako hiztunen artean, aldakortasunari dagokionez, jaso diren ahoskera-ezberdintasunetan jarriko da arreta. Erakutsi nahi da euskara ikasteko modua kontuan izateko aldagai esanguratsua dela ahoskerak hizkera-mailaren arabera izan dezakeen aldakortasunari dagokionez.

Horrela, bada, lehendabizi, 2. atalean, hizkera-mailez arituko gara: hizkera-mailak zer diren, euskalkiekin eta euskara batuarekin duten lotura zein den eta irakaskuntzak hizkera-mailen arabera aldakortasuna eratzeko duen garrantzia azalduko da. Jarraian, 3. atalean, artikulu honetarako erabilitako corpusaren berri emango da. 4. atalean hiztunen ahoskerak aztertuta lortutako emaitza nagusiak aurkeztuko dira, eta azkenik, 5. atalean, aurrera begirako gogoeta batzuk ekarriko dira.

2. HIZKERA-MAILAK

Hizkuntzan aldakortasuna gerta daiteke egoeraren nolakotasunagatik: «Language is subject to variation not only geographically or according to the social characteristics of the speaker but also according to the situational context in which they find themselves» (Hernández-Campoy, 2016, 37. or.).

Hiztunek hizkera, une jakin bakoitzeko testuinguruaren edo egoeraren arabera, aldatu egiten dute. Egokitze horretan hainbat alderdik izaten dute eragina; hizkera-mailen¹ inguruko lanetan (besteak beste, Joos, 1961/1967, 1968; Labov, 1966/2006, 1972; Llisterri, 1992), oro har, hiru alderdi aipatzen dira²: solaskidea (hartzailea edo entzulea), hizketagaia eta hizketa-jarduna gertatzen deneko lekua.

1 Artikulu honetan darabilgun *hizkera-maila* terminoa hainbat lanetan *erregistro* izena ematen zaion hori da.

2 Hizkuntza gutxituen kasuan, estiloan izan daitekeen aldakortasunean eragina izan dezaketen aldagaien berri izateko, besteak beste, Kasstan (2019) eta Nance (2020) lanak gomendatzen dira.

2.1. Hizkera-maila arduragabea eta zaindua

Hizkera-mailen araberako aldakortasunari ez zaio, oro har, arreta askorik eskaini hizkuntzalaritzako lanetan. Ez du tradizio handirik, nahiz eta azken urteetan gehiago landu den (Hernández-Campoy, 2016; Llisterri, 1992; Kasstan, 2019). Euskararen alorrean ere egoera antzekoa da; hemen ere hizkera-mailen gaineko ikerketak nahiko urriak dira. Gehienetan, zeharka aurkitzen ditugu hizkera-mailei buruzko aipamenak. Ez ditugu lan asko hizkera-mailen araberako hizkuntza-aldakortasuna aztertzeko helburuz eginak. Salbuespen gutxi batzuk ditugu, gehienak azken urteetakoak. Batetik, aipatzekoa da, kronologikoki lehenengoetakoa delako, Etxeberriaren (1994) hizkera jasoaren gaineko lana; bestalde, hor ditugu atal honetan aipatuko diren Euskaltzaindiko Ahoskera Batzordearen zenbait lan, ahoskeraren arautzean hizkera-mailek duten lekua erdigunera ekarri dutenak –ikus, besteak beste, Oñederra (2019) eta Oñederra et al. (2015)– edota Artzelusen (2020) lana, zeinak Garaziko (Nafarroa Beherea) hizkuntza-aldakortasun diafasikoa ikertzen duen, hiztun baten estilo informala eta formala alderatuta. Gainerakoan, oro har, han eta hemen, beste aztergai batzuk oinarri dituzten lanetan baino ez dira topatzen hizkera-mailei buruzko aipu eta azalpenak. Ikerlan honetarako, Ahoskera Batzordearen ideietan oinarrituko gara, batez ere.

Hizkera-mailak zenbakaitzak direla esan daiteke, euren arteko aldeak ugariak eta era askotakoak direlako, eta ezin delako erabateko mugarik aurkitu bataren eta hurrengoaren artean (Oñederra, 1994, 1592. or.). Ez da erraza hizkera-mailen artean banaketak egitea, *continuum* bat osatzen baitute. Hala ere, badira hizkera-mailen sailkapenak proposatu dituzten lan batzuk. Hor daude, esaterako, tradizio handienetakoa dutenak aipatzearren, Joosen (1961/1967, 1968) proposamena eta Labovena (1966/2006, 1972).

Artikulu honetan ez gara hizkera-mailen banaketen eztabaidan luzatuko. Ahoskera Batzordeak, Mitxelenagandik datozen terminoei (*zaindu* eta *arduragabe*) jarraituta, hizkera-maila zaindua eta arduragabea bereizten ditu; lehendabizikoa egoera jasoen baliokide litzateke, eta bigarrena lagunarteko egoerena. Gutxieneko sailkapen bat egitearren, banaketa horri jarraitu diogu gure ikerlanean, ondo lotzen baita ahoskera gaiak lantzeko ikerketekin. Kontuan izan da, ordea, bi hizkera-mailen banaketa horrek ez duela esan nahi bi maila banandu daudenik; izan ere, maila zaindua eta arduragabea *continuum* baten bi ertzak lirateke, bien artean hainbat maila leudeke, zenbatzen zail gertatzen direnak. Gainera, garrantzitsua da kontuan izatea arduragabe-zaindu *continuum* horrekin batera, hiztunaren unean uneko hizkeran eragina luketela beste hainbat alderdik ere; besteak beste, hiztunak bere identitatea proiektatzeko duen moduak edo hartzailearen ezaugarrietara hurbiltzeko moduak³.

3 Aldakortasuna soziolinguistikaren ikuspegitik aztertu duten zenbait lanek erakutsi dute, bereziki hizkuntza gutxituen kasuan, hizkera-maila informal eta formal ardatzean gertatzen den aldakortasuna baino konplexuagoa dela gertatzen den aldakortasuna: beste zenbait aldagai leudeke kontuan hartzekoak (ikus Kasstan, 2019; Wolfram, 2002).

Egoera formal edo jasoari legokiokeena litzateke hizkera zaindua, egoera horietan hitzunak arreta jartzen duelako, edukian (mezuan) ez ezik, besteak beste, eduki hori adierazteko forma fonikoan (ahoskeran) ere. Hortik ahoskerari horrenbesteko arreta eman ohi ez zaion lagunarteko egoerak, formari dagokionez, arduragabe lirateke (Oñederra et al., 2015, 525. or.).

Jendearen aurrean irakurtzeak eskaintzen du hizkera zaindua erabiltzeko aukera egokienetakoa (Durand, 2014, 253. or.). Esaterako, zientzia-alorreko kongresuetako hitzaldietan, telebistako albistegietan eta dokumentaletan, hizketa zaintzeko saiakera berezia egiten da. Egoera horietan hitz egitean beti irakurtzen ari ez garen arren, hizkera zaindurako eredia irakurritik sortzen da sarri, irakurtzea eskatzen duten edo irakurria abiapuntu duten egoerak izaten baitira maiz hizkera zaindua erabiltzeko egokiera nagusiak. Horrelakoetan, seinalea sendoa izan dadin, ahalegin berezia egin ohi da eta horretan ahoskerak leku esanguratsua betetzen du. Prosodiari dagokionez, esaterako, erritmoa eta ahotsaren indarra zaintzen dira (Llisterri, 1992, 16. or.).

Hizkera-maila arduragabeetan, berriz, hiztuna mezura begira egon ohi da gehiago eta ez da formaz, ahoskeraz, berariaz horrenbeste arduratzen; normalean ez dio maila jasoetan bezainbesteko arretarik jartzen, alegia (Donegan & Stampe, 2009, 2. or.; Labov, 1972, 79. or.). Horrelako egoerak sortzen dira, esaterako, herriko tabernan lagunaren artean joan den asteburuko parrandaz hitz egiterakoan edo afalorduan etxekoie egunean zehar egindakoak kontatzerakoan. Ez dira gutxi hizkera arduragabea erabiltzen dugun egoerak; areago, Dresslerren (1985, 315. or.) esanetan, egiten dugun hizketaren zatirik handiena (% 99) hizkera arduragabeari dagokio. Bat-batekotasuna, bizitasuna eta adierazgarritasuna izan ohi dira, besteak beste, maila arduragabeko hizketaren ezaugarriak (Oñederra, 1994, 1593. or.).

2.2. Euskalkiak, euskara batua eta hizkera-mailak

Artikuluaren sarreran azaldu da euskara denbora-tarte luzean soziologikoki murriztua izan dela: gehienbat maila arduragabeetan (lagunartean, etxekoekin) erabili da, maila zainduetan (irakaskuntzan, administrazioan, etab.) erdarak erabili dira askotan, gaztelania eta frantsesa batez ere. 1960ko hamarkadatik aurrera, ordea, euskal gizartea berpizten hasi zen eta, pixkanaka, euskara maila jasoetan sartu zen; irakaskuntzan eta hedabideetan, besteak beste. Euskara batua sortzeak (1968an finkatu ziren oinarriak) ere lagundu zuen euskara esparru berrietara zabaltze horretan (Zuazo, 2005/2006, 12. or.).

Euskara batua maila zainduetarako proposatu zen. Horrek banaketa eta lotura ekarri edo indartu du euskalkiak / euskara batua eta hizkera-mailei dagokienez: euskalkiak hizkera-maila arduragabearekin lotzeko, berdintzeko, joera dago batzuetan eta batua maila zainduarekin⁴. Lotura horren arrazoia, hein batean behintzat, goiko lerroetan

4 Aurrerago azalduko dugun bezala, batuaren hasierako garaietatik egoera aldatu egin da, egun euskara batua bakarrik jaso duten hainbat hiztun baitago eta, beraz, horiek, euskaraz aritzean, euskara batua egoera guztietan (izan jaso, izan lagunartekoa) erabiltzen dute.

aipatu den euskararen erabilera mugatua kokatzen da: «euskara lagunartean erabili dugu, eta esparru jasoetan, berriz, erdarak baliatu ditugu. Hori dela eta, lagunarteko hizkera garatu da, gehienbat, euskaraz, eta hizkera horrexekin berdintzen da euskalkia» (Zuazo, 2005/2006, 217. or.).

Oñederrak (2017) ere heltzen dio ideia horri eta aipatzen du dialektoak maila arduragabearekin eta estandarra zainduarekin lotzea estutu edo indartu egiten duela euskararen egoera soziologiko mugatuak:

Not surprisingly, dialects are in general considered to be colloquial while any form the standard may take is considered to be a formal register. This well-known pattern is intensified by the sociological history of Basque bilingualism: along its history the Basque language was abandoned by social elites and restricted to households and small villages, while other languages occupied the public domain. Consequently, variation in Basque is rich along the geographical axis, but stylistically poor: numerous locally based varieties and subvarieties have developed, but functional variation is very limited (Oñederra, 2017, 344. or.).

Lotura hori, izatez, ez da nahitaezkoa hizkuntzetan. Dialektoak ez dira, derrigorrez, hizkera-maila arduragabearen sinonimo, ezta aldaera estandarra maila zainduarena ere. Dialektoaren eta estandarren barnean ere izan daiteke hizkera-mailen antolaketa mailakatu bat. Hala gogorarazten digu Zuazok (2005/2006, 217. or.): «Eduki dezagun, beraz, gogoan lagunarteko hizkera eta jaso daudela euskalkiaren barruan, eta bata bezain euskalkia dela bestea. Euskara batuan ere badira bi maila horiek»⁵.

Erabileran, ordea, bestelakoa gertatzen da askotan. Esan daiteke euskaraz ez dagoela, oro har, hizkera-mailen egitura mailakaturik euskalkien eta euskara batuaren artean. Hau da, euskara batuak eta euskalkiek hizkera arduragabea eta zaindua, biak dituzte? Edo batua zainduarekin eta euskalkiak arduragabearekin berdintzeko joera da nagusi? Galdera horiek etorkizuneko ikerketek ziurtasun handiagoz erantzungo dituztela adierazita, aurreratu liteke, ziurrenik, gertuago geundekeela azke-neko galdera baieztatzetik.

Hiztunek euskara batua hizkera jaso edo zainduarekin eta euskalkiak lagunarteko edo arduragabearekin lotzeko izan dezaketen joerak leharkeena da euskalkiko ezaugarriak hizkera-maila arduragabeko hizkuntza ezaugarriekin nahastea eta euskara batukoak zainduko ezaugarriekin. Esaterako, har ditzagun bi esaldi, batuaren gramatikaren eta hiztegiaren arabera moldatutzat eman daitezkeenak: *ikasten ai da* eta *ikasten a[r]i da*. Lehendabizikoan ez da bokalarteko ttaka ahoskatzen eta bigarrenan bai. Ttakaren kenketa ohikoa da hizkera-maila arduragabea; aldez, maila zainduan

5 *Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua* izenak berak ere aditzera ematen du euskara batuaren barnean (kasu honetan, baina berdin euskalkiei dagokienez ere) hizkera-mailak daudela, izan daitezkeela. *Zaindua* etiketaren zehaztapen horrek adierazten du baduela (izan dezakeela) batuak beste ahoskera modu bat ere, zaindua ez dena; arduragabea, alegia. Batuaren erabilera bakarra zaindua balitz, ez legoke *zaindu* terminoaren beharrik, *Euskara Batuaren Ahoskera* izenarekin aski litzateke.

ttaka ahoskatzearen alde egin ohi da (ikus 4.2. atala), EBAZen ere bide bera proposatzen da (V.3. araua). Berez, bada, hemen jokoan legokeena hizkera arduragabearen (*ai*) eta zainduaren (*a[r]i*) arteko aldea litzateke, ez euskalkiaren eta euskara batuaren artekoa (ikus Donegan & Stampe, 2009, 2. or.). Ziurrenik, ordea, hiztun batek baino gehiagok *ai* euskalkiaren ezaugarritzat hartuko luke eta *a[r]i* batuaren zantzutzat; izan ere, lehendabizikoa lagunarteko mailetan erabiltzen da gehienetan, eta bigarrena, zainduan. Literaturako irakasle bati entzundakoa da, aspaldiko testu bat aztertzen ari zela, testua euskalkian zegoela idatzita, besteak beste, (*e*)in ‘egin’ eta *euki* ‘eduki’ bezalakoak agertzen zirelako.

Euskalkiaren erabilera zainduaren adibide izan liteke herrikoentzat ematen den hitzaldi batean euskalkian aritzea, baina ahoskera zainduko ezaugarriak, gehiago edo gutxiago, erabilita⁶. Antzekoa esan liteke euskara batuaren lagunarteko hizkeraren erabilera ere. Azpiatalaren hasieran aipatu da euskara batua sortu zenean maila zaindurako proposatu zela. Egun, ordea, bada hiztunik (ez dira gutxi) batua lagunarteko mailetan ere erabiltzen duenik, erabili behar duenik; izan ere, egun zenbait hiztunek ez dute euskalkirik. Asko dira txikitatik euskara batua baino jaso ez duten hiztunak; ez dute euskalkirik bereganatu, euskara batua da duten euskal aldaera bakarra. Profil horretako hiztun asko euskara etxean jaso ez dutenak izan ohi dira (eskolan, euskaltegian, etab. jaso dutenak). Horrelakoak dira, euskara etxean bereganatu arren, etxean euskalkirik jaso ez duten hainbat hiztun ere. Maila arduragabeak euskalkiekin (bakarrik) lotzean, hankamotz gera litezke batua bakarrik erabiltzen duten hiztunak, ez baitute baliabiderik maila arduragabeetan euskaraz aritzeko; gogora bedi egiten dugun hizketaren zati handiena maila arduragabeari dagokiola (2.1. atala).

Horixe da euskara batua baino hitz egiten ez duten zenbait hiztunen egungo egoera. Baliabiderik gabe ikusten dute beren burua lagunarteko mailetan euskaraz aritzeko; izan ere, «orain arte eraiki den euskara batua esparru jasoetarako izan da; irakaskuntzan, liburuetan, hedabideetan, administrazioan eta tankera horretako jardunetan erabiltzekoa» (Zuazo, 2005/2006, 241. or.). Ortega eta bestek (2016, 161. or.) adierazten duten bezala, «batuaz ez da erregistro informalik garatu».

Izan euskalkidun edo izan batua besterik erabiltzen ez duena, hiztun guztiek ezinbestekoa dute egoera eta esparru bakoitzari (arduragabe nahiz zainduetarako) erantzuteko hizkerak eskura izatea; gainerakoan, zenbait egoerari euskaraz erantzun ahal izateko baliabiderik gabe geratuko dira, eta horrelakoetan, erdarara jo ohi da. Horrela, bada, helburua litzateke euskara batua bakarrik ikasi dutenei maila arduragabeetarako baliabideak eskaintzea eta euskalkia dutenei maila zaindurako bidea erakustea (Oñederra, 2019, 934. or.). Helburu hori lortu eta hizkuntzaren normalizazio estilistikoa erdies- teko, irakaskuntzak bereziki leku esanguratsua luke.

6 Egun, euskalki bakarrekoei zuzendutako jardun zainduak gutxiago izan ohi dira jende-multzo handiei zuzendutakoak baino, eta horrek ere euskalkia maila zainduetan erabiltzeko aukerak murriztu egiten ditu; jende-multzo zabalari (askotarikoari) zuzentzen gatzazkionean euskara batua erabili ohi dugu, oro har.

2.3. Irakaskuntza eta hizkera-mailen arabera aldakortasuna

Hizkuntzen irakaskuntzaren helburu nagusietako bat hiztunen gaitasun komunikatibo garatzea da; hau da, hizkuntza testuinguru eta funtzio jakinetara egokitzeko ahalmena izatea (Siguan, 1990, 10. or.). Hitzunek baliabideak behar dituzte hizkera-maila bakoitzean era eraginkorrean komunikatu ahal izateko, eta hiztunei baliabide horiek eskuratzen lagun diezaiekeen bide nagusia irakaskuntza litzateke:

Podemos decir por tanto que el resultado último de la educación lingüística consiste no sólo en el dominio de una lengua correcta, precisa y flexible sino también en la capacidad de utilizar en cada situación y para cada función que puede cumplir el lenguaje la variedad de lengua adecuada (Siguan, 1990, 26. or.).

Gauzak horrela, irakaskuntzara begira, erronka nagusietako bat litzateke ahoskerazaindurako proposamenak lagunarteko mailetan euskalkietako formekin bateratu, harmonizatu, irakasteko modua aurkitzea, hiztun guztiek hizkera-mailen arabera aldakortasunerako bidea ezagut dezaten (Oñederra, 2017, 352. or.).

Hiztun berrien kopurua nahiko handia da egungo belaunaldietan⁷; hiztun-talde esanguratsua osatzen dute. Denborak aurrera egin ahala, kopurua hazten joan da eta hala jarraitzen du. 1991n % 13,6 baino ez ziren euskararen eremu osoan eta, aldiz, V. Inkesta Soziolinguistikoa arabera, 2011n jada % 34,9 ziren. Gainera, belaunaldi gazteen artean datuak are handiagoak dira: 2011n 16-24 eta 25-34 urte bitarteko artean erdiak baino gehiago euskara etxean ikasi ez zuten hiztunak ziren; % 51,8 eta % 52,5, hurrenez hurren. Gazte hiztun berri gehienak EAEn eta Nafarroan zeuden; Iparraldean gutxienez, baina azken eremu horretan ere geroz eta gehiago ziren (Eusko Jaurlaritza, 2013, 32.-33. or.). Azken urteetako norabideak bertsua izaten jarraitzen du. VI. Inkesta Soziolinguistikoa adierazten da 2016an euskararen eremu osoan % 36,2 hiztun berriak zirela eta belaunaldi gazteen taldean (16-24 urte) euskaldunen erdia baino gehiago (% 54,3) zela euskara etxetik ez zekarrena (Eusko Jaurlaritza et al., 2016, 16. or.). Datuek erakusten dutenez, ez da txikia euskal hiztun berrien kopurua eta, gainera, goranzko joera du.

Euskara batua izan da euskara eskolan ikasi duten hiztun gehienek bereganatu duten aldaera. Zehatzago esanda, euskara batu zaindua izan da, oro har, ikasi dutena, hori izan ohi baita eskolan (publikoan, ikastolan nahiz euskaltegian, esaterako) irakasten den eredu nagusia (Lantto, 2022, 643. or.). Hiztun horiek hizkera-maila zaindurako

⁷ *Hiztun berri* (edo *euskaldun berri*) terminoa zabala litzateke, bere baitan oso errealitate plurala biltzen baita: euskara helduaroan ikasi dutenak, euskara irakaskuntzaren bidez txikitatik jaso dutenak, eta abar daude (Ortega et al., 2013). Tradizioz, oro har, euskara helduaroan ikasi dutenak izendatzeko erabili izan da *euskaldun berri* adiera, baina gaur egun, hezkuntza-sistemari esker, beste modu bateko euskal hiztun berriak sortu dira; besteak beste, txikitatik jaso dutenak euskara eskolan (ez etxean). Gure laneko corpusean (3. atala) ez ditugu *euskaldun zahar* eta *euskaldun berri* terminoak erabili hiztunak izendatzeko, besteak beste, termino horiek oso lotuak daudelako hiztunen euren ideologia, jarrera eta identitateekin (Jaffe, 2015; Ortega et al., 2016; Ramallo, 2013). Hitzunek euskara etxean edo etxetik kanpo ikasi duten hartu dugu kontuan.

eredua bakarrik ikasten badute, beste aukeren berririk gabe, aldaera hori hizkuntza-
ren egokiera guzti-guztietarako erabiltzeko joera izan dezakete (Oñederra et al., 2015,
513. or.)⁸. Egoera guztietan hizkera zaindua erabiliko dute edo egoera batzuetan (lagu-
nartekoetan), agian, erdarara joko dute. Azken aukera hori ez da gutxitan egiten:
«Maisu-maistrek antolatutako hainbat jarduera formaletan, euskara erabiliko dute,
baina, handik kanpo, eta bereziki lagunen arteko harreman informaletan, gaztelania
aukeratuko dute» (Jauregi, P., 2003, 105. or.).

Baldin eta irakaskuntza hiztunen erabilera-esparru arduragabeetara ere zabalduz egi-
ten bada, hizkera-mailen arteko aldakortasuna garatzeko bide eraginkorra izan dai-
teke. Are gehiago, eskolak egiteko garrantzitsua luke arlo horretan:

[E]n la escuela se ha de potenciar en el niño la capacidad de utilizar el lenguaje para
relacionarse con interlocutores diversos, en diferentes contextos y con diferentes
intenciones. Todo esto implica saber utilizar la lengua en su variedad de registros y
funciones (Camps, 1990, 37. or.).

Euskara etxean jaso ez duenari edota euskalkirik etxetik ez dakarrenari ez litzaioke
estandar zurrin maila bakarreko bat soilik eman behar. Horrek lekarke hiztuna
hiztun oso ez izatea, hizkera-maila bakarreko hiztuna bailitzateke⁹. Modu horretan,
eskolatik kanpoko erabileretan ondorio larriak etor litezke, komunikazio-egoeretakoko
egokitze-estrategietan baliabide linguistikorik gabe gera baitaiteke hiztuna, hizkera-
mailen araberrako aldakortasunetik datozen baliabiderik gabe. Gainera, hiztunentzat
auto-pertzepziorako ere garrantzitsua da maila arduragaberako baliabideak eskura
izatea (euskalkiak barne, askotan); horiek gabe ez dira hiztun oso sentitzen, ezta euskal
hiztun legitimo ere –ikus Ortega et al. (2013, 2016)–.

Komeni da ohartzea edo gogoan izatea eskolako jardunaren barnean ere badirela hiz-
kera-maila bat baino gehiago; hau da, irakaskuntza jardunean, hizkera-maila zainduaz
gain, izan daitezke une eta egoerak, non hizkera arduragabeagoa (ez horren zaindua)
erabil litekeen (Maia & Larrea, 2008, 126. or.). Hainbat hizkera-maila izan daitezke,

8 Hemen eragina du, noski, hiztuna bizi den edota harreman-sareak dituen ingurune egoera soziolinguis-
tikoak; esaterako, euskara kalean asko edo nahikoa erabiltzen den edo ez eta euskalkidun ingurune batean
bizi den edo ez. Lehenengo kasuan, hiztunak euskara kalean (lagunartean barne) nahikoa entzuteko aukera
badu, lagunarteko aldaera ere bereganatzeko aukera izan dezake. Aldiz, hiztunak eskolatik kanpo euskara
gutxitan entzuteko eta erabiltzeko aukera badu, euskara batu zainduarekin soilik gera daiteke eta, horrela,
euskara maila arduragabeetan erabili behar duenean ere, batu zaindua erabili beharko du (edo erdarara jo,
maiz egin ohi dena). Bigarren kasuan, bere inguruan euskalkia entzuteko aukera izateak ere (kasu horretan
ere, euskalkiaren indarra handiagoa edo txikiagoa izan daiteke) eman diezaiokite hiztunari baliabiderik maila
arduragabeetako hizkera bereganatzeko, maiz euskalkiko formak izan ohi baitira hizkera-maila arduraga-
beetan erabiltzen direnak. Euskalkirik gabeko guneeetan, ordea, nekez entzungo du estandarra ez den beste
eredurik egunerokoan (ikus Lantto, 2022).

9 Gauza bera esan daiteke kontrako egoeraz ere, maila zainduenetan ere etxeko hizkera erabiltzeaz, alegia. Az-
ken mota horretakoak euskara txikitatik etxean jaso duten eta euskalkiren bat menderatzen duten hiztunak
izan ohi dira. Beren jokaeraren arrazoiak bat baino gehiago izan daitezke. Batzuek ez dakite batua erabiltzen,
beste batzuek ez dute nahi edo ez dute egoeraren arabera hizkera egokitzeko beharrik sumatzen, ezta euskara
batua sendotzekoa ere (Oñederra et al., 2015, 509. or.).

esaterako, irakasleak ikasle guztien aurrean subjuntiboaren inguruko azalpen bat eman behar duenean eta asteburuan zer egin duen kontatzen ari denean, gero ikasleek ere kontatu dezaten, baita ikasle bati bakarka (ez gainerakoen aurrean) hitz egiterakoan ere, bere emaitzez edo aurrera begira dituen asmoez. Lehendabiziko egoera baino arduragabeago izan daitezke azken biak eta, horrela, irakasleak hizkera arduragabeago bat erabiltzeko aukera izan dezake horietan, ikasleek, euskara batu zainduaz gain, arduragabeagoa den (eta euskalkiko ezaugarri batzuk ere izan ditzakeen) hizkera batekin harremana izan dezaten. Irakasleek ikasleekin (bakarka nahiz taldeka) jolas-orduan, atsedendian edo korridoreetan, besteak beste, izan ohi dituzten hartu-emanak ere balia daitezke hizkera arduragabeago bat erabiltzeko¹⁰.

3. CORPUSA: HIZTUNEN AHOSKERAK AZTERTZEN

Euskal hiztunek hizkera-maila arduragabea eta zainduan erabiltzen dituzten ahoskerak zein diren jakiteko, zenbait hiztunen bi hizkera-maila horietako ahoskerak bildu eta aztertu dira, analisirako Fonologia Naturalean oinarrituta. Datu horiek biltzeko egindako aukeren berri emango da jarraian¹¹.

3.1. Hiztunak

16 hiztunen ahozko jardunak bildu dira. Hiztunen erdiak euskara etxean ikasiak izan dira eta beste erdiak euskara etxean ikasi ez dutenak. Azken horiek, nagusiki, lehen urteetan bederen, eskolan edo euskaltegian ikasi dute euskara. Horrekin batera, hiztunen erdiak Hegoaldekoak izan dira, Ikaztegiakoak (Gipuzkoa) hain zuzen, eta beste erdiak Iparraldekoak, Baigorrikoak (Behe Nafarroa) zehazki. Lehen hurbilketa gisa, Hegoaldeko hizkera bateko eta Iparraldeko beste hizkera bateko datuak biltzea erabaki da, zenbait eremu dialektaleko hiztunak kontuan hartzeak ahoskera gertakizun gehiago aztertzeak aukera eskaintzen duelako, are gehiago, hizkera horiek Hegoaldeko bat eta Iparraldeko beste bat badira; izan ere, zenbait lanetan erakutsi den bezala, Hegoaldeko eta Iparraldeko hizkeren arteko aldea aski handia da. Azkenik, hiztunen adina ere kontuan hartu da; erdiak 20-30 urte bitartekoak izan dira, datozen lerroetan azalduko den bezala, oro har, elebidun goiztiarrak izan dira, eta beste erdiak 50-60 urte bitartekoak, elebidun berantiarak.

Beraz, guztira 16 hiztunekin egin da lan. Euskararen ahoskeraren eta hizkera-mailen nondik norakoak ez daude, oro har, aski aztertuak eta, hasteko, ikerketa-froga eta lehen hurbilketa gisa, hiztun (eta hizkera) kopuru mugatuarekin hasi nahi izan da,

10 Maiak eta Larreak (2008, 126. or.) diote, bereziki, eskolako lehen mailetan erabili beharko litzatekeela tokian tokiko formak ere onartzen dituen hizkera eredu bat, euskara batu zaindu maila bakarreko bat erabili beharrean: «lehen mailetako eskola-lanetan onartu eta bultzatu behar litzatekeen eredu batuak (*eskolarako euskara batuak*) anitzez ere lotuago egon beharko luke tokian tokiko forma dialektalei, unibertsitatean erabiltzeko litzatekeenak baino. Horrek ez du esan nahi azken eredu horretan ezaugarri dialektalek ez luketela sarbiderik».

11 Urreta (2025) lanean corpusaren eta datu-bilketaren xehetasun gehiago azaltzen dira.

lehentasuna aldagai gehiago (hizkera, adina eta, batez ere, euskara ikasteko modua) kontuan hartzeari emanda. Artikulu honetako ikergaia lan handiago baten (doktore-tza-tesi baten) zati da (Urreta, 2025), bertan euskararen ahoskeran hizkera-mailaren arabera izan daitekeen aldakortasunean eragina duten alderdi behinenak identifikatu nahi izan dira. EBAZ erreferentziaztat hartuta, arau horretan agertzen diren bokal, bokal-bilkura, kontsonante eta kontsonante-bilkura guztiak aztertu dira (3.2. atala), horrek ere zaildu egiten du hiztun-kopuru handiagoarekin lan egitea, ahoskera gertakizun asko aztertu baitira. Aurrera begira, ikusita zein aldagai diren emankor (euskara ikasteko modua kasu), sakonduko da horietan, behar izanez gero, hizkera- eta hiztun-kopurua handituta¹²:

1. taula. Ikerlanean parte hartu duten hiztunak

Hiztunak				
	Ikaztegieta (Gipuzkoa)		Baigorri (Behe Nafarroa)	
	Euskara etxean ikasiak	Euskara etxean ez ikasiak	Euskara etxean ikasiak	Euskara etxean ez ikasiak
20-30 urte	IK1	IK5	BA1	BA5
	IK2	IK6	BA2	BA6
50-60 urte	IK3	IK7	BA3	BA7
	IK4	IK8	BA4	BA8

Euskara etxean jaso duten hiztun guztiak euskara-gaztelania (Ikaztegieta)edo euskara-frantsesa (Baigorri) elebidun goiztiarrak dira. Bi hizkuntzak nerabezaroa baino lehen bereganatu dituztela azpimarratu behar da, garai hori mugarri esanguratsu gisa aurkeztu izan baita tradizionalki hizkuntza baten fonologiaren jabeak (Donegan & Stampe, 1979, 126.-127. or.)¹³. Hala ere, jarraian azalduko den bezala, berriagoak diren ikerketek erakutsi dute posible dela helduaroan ere hizkuntza baten sistema fonologikoaz jabetzea, nahiz eta, oro har, ahalegin handiagoa behar.

Gure ikerlaneko hiztunek erdarak haurrak zirenetik inguruan izan dituzte; besteak beste, lagunartean, familian eta hedabideetan jaso dituzte eta, batez ere, eskolan ikasi eta landu ere egin dituzte txikitatik. Euskara etxean ikasi ez duten hiztunen artean,

12 Parte-hartzaileak izendatzeko, euren bizitokiaren lehen bi letrak eta zenbakiak erabili dira; alegia, Ikaztegieta hiztunak izendatzeko, IK gehi zenbakiak eta Baigorrikoentzat BA gehi zenbakiak jarri dira. Zenbaki hurrenkera hiztunen adinaren arabera da euskara ikasteko moduari dagokion multzo bakoitzaren barnean. Hau da, euskara etxean ikasitako hiztunen artean, gazteenetik zaharreneara zenbakitu dira, herri bakoitzeko gazteenari 1 zenbakia jarri zaio eta zaharrenari 4 zenbakia; euskara etxean ikasi ez duten hiztunen multzoan ere gazteenetik zaharreneara izendatu dira hiztunak, 5 zenbakia eman zaio gazteenari eta 8 zenbakia zaharrenari. Ikus 1. taula.

13 Zalantzarik gabe, noski, zuzenduta goiztiarra sendoen bermatzen du haurrak bi hizkuntzak hasiera-hasieratik entzuteak (Oñederra et al., 2014, 79. or.).

berriz, ezberdintasunak daude bigarren hizkuntza (euskara) bereganatu duten adinari dagokionez. Batetik, bi herrietako hiztun gazteek (IK5, IK6, BA5, BA6) haurrak zirenetik ikasi dute euskara eskolaren bidez¹⁴, 3 urtetatik, gehiago edo gutxiago, euskara jaso dute; salbuespena IK6 hiztuna da, hau geroago, 10 bat urterekin hasi baitzen euskara ikasten eskolan. Horrela, bada, hiztun horiek, etxetik euskara ez badakarte ere, elebidun goiztiarrak lirateke. Beraz, euskara etxean ikasitako hiztunekin alderatuta, ezberdintasuna euskara ikasteko moduan legoke, etxean jaso beharrean, eskolan ikasi dutela, alegia.

Bestetik, euskara etxean ikasi ez duten hiztun helduen taldea dugu (IK7, IK8, BA7, BA8). Hauek, gazteek ez bezala, nerabezaroa igarota bereganatu dute euskara, gutxi gorabehera, 18-20 urte zituztela hasi ziren guztiak euskara ikasten AEKn. Kasu honetan, beraz, nerabezaroa harturik hizkuntza baten sistema fonologikoaz jabetzeko erreferentziatzat, hiztun horiek ez lirateke gaztelania/frantsesa eta euskara elebidun goiztiarrak.

Hizkuntzaz jabetzeko adinaren epe eta mugez asko esan da, asko idatzi da; esaterako, hizkuntza jatorrizko hiztunen mailan ikasi ahal izateko ba ote dagoen aro kritikorik eztabaidagai izan da zenbaitetan (Bialystok, 1997; Lenneberg, 1967; Scovel, 2000; Singleton & Ryan, 2004). Autore batzuek (Brown, 1980/2006; Gil Fernández, 2007) defendatu dute haur garaian edo gaztetan (nerabezaroa baino lehen, oro har) hasiz gero bigarren hizkuntza bat ikasten, posible dela jatorrizko hiztunen maila bereganatzea baina, garai horretatik aurrera, zailtasunak izango dituela hiztunak bigarren hizkuntza bat ikasteko¹⁵. Beste zenbait autorek (Derwing et al., 2014; Levis, 2018; Nance, 2020; Usó, 2008), berriz, azaldu dute helduaroan ere ikas daitekeela bigarren hizkuntza bat, adinaz gain, beste alderdi batzuek ere eragin handia baitute; besteak beste, hiztuna bizi den eta harremanak dituen inguruan ikasten ari den hizkuntzak duen presentziak eta erabilerak edota hiztunak hizkuntza hori ikasteko duen helburu eta motibazioak.

Lan honetan ez gara bigarren hizkuntza bat ikasteko adinak duen eraginaren inguruko eztabaida konplexu horretan sartuko. Onartutzat emango da adina eragile garrantzitsua dela hizkuntzaren jabetasun-prozesuan; besteak beste, urtebete ingururekin haurraren oharmentean gertatzen den berrantolaketa da horren erakusle (Donegan, 1995, 60. or.). Gutxieneko mugarri bat zehazte aldera, nerabezaroa hartuko da erreferentziatzat (Donegan & Stampe, 1979, 126.-127. or.).

14 Baigorriko hiztunen kasuan, euskarak eskolan izan duen presentzia ezberdina izan da; izan ere, BASek eskola publikoan (elebidunean) ikasi zuen eta BA6, berriz, ikastolara joan zen. Hiztunek euren aitortu dutenez, aldeak nabari dira batzuetan euskararen atxikimendu eta erabileran bi eskoletako ikasleen artean. Ikaztegiako hiztunak, berriz, biak D ere duen (euskarazko murgiltze ere duen) ibiliak dira.

15 Zailtasun-maila ezberdina izango da hizkuntzaren atal jakinetan; esate baterako, behin nerabezaroa pasata, ahoskera bereganatzeko ezintasunak handiagoak izaten dira, oro har, sintaxia menderatzeko izan daitezkeenak baino (Pato & Molinié, 2009, 172. or.).

Horrela, bada, euskara etxean ikasi duten hiztunen taldea, elebiduntzearen adinari dagokionez, homogenea da; alegia, guztiek haurrak zirenetik bereganatu dute beste hizkuntza bat (gaztelania edo frantsesa) eta, hortaz, elebidun goiztiarrak dira. Euskara etxean ikasi ez dutenen taldean, aldiz, ezberdintasunak daude hiztun gazteen eta helduen artean, lehendabizikoek, oro har, haurrak zirenetik bereganatu baitute euskara eskolan (elebidun goiztiarrak) eta helduak, berriz, nerabezaroa igarota hasi ziren euskara ikasten (elebidun berantiarrak). Azken hiztun-multzo horri talde-izaera ematen diona eta euskara etxean ikasi dutenekin alderatzeko aukera eskaintzen diguna euskara ikasteko modua da; hau da, hiztun guztiek euskara etxetik kanpo, irakaskuntza formaren bidez, bereganatu dute.

3.2. Datuen bilketa eta azterketa

Ikerlanaren helburu nagusia, hizkera-mailaren arabera, hiztunen ahoskeran gertatzen den aldakortasuna aztertzea izan da, eta horretarako, hizkera-maila arduragabeko eta zainduko jardunak bildu dira (2.1. atala).

Batetik, hizkera-maila arduragabeko jardunak biltzeko, hiztunekin solasaldi bana egin da, eguneroko gauza edo zereginen inguruan. Helburua ahalik eta hizketa bat-batekoena biltzea izan da (Llisterri, 1992, 3. or.). Horretarako, eguneroko gaiez aritzeaz gain, solasaldiak binaka egin dira, hiztunen euren etxeko edo lagun batekin, eta eurentzat ezaguna den lekuetan egin dira, gehienetan euren etxeetan. Batez beste, ordubeteko solasaldiak izan dira.

Bestetik, hizkera-maila zainduko jardunak biltzeko, hiztunei egoera bat eman zaie irudikatzeko. Esan zaie, Argiaren Nazioarteko Eguna dela eta, ETB1ek dokumental bat antolatu duela eta, eurak fisikan, batez ere, argiaren zientzietan adituak direnez, dokumentalean parte hartzera gonbidatu dituztela; gonbidapena onartu egin dutela eta testu bat prestatu dutela, dokumentalean atzeko ahots gisa jarriko dena. Beraz, euren zeregina eman zaien testua ozen irakurtzea izan da. Jendearen aurrean irakurtzeak, hein batean behintzat, hizkera zaindua erabiltzea errazten duenez (Durand, 2014, 253. or.; Labov, 2001, 86.-87. or.), irakurtzeko testu bat ematea aukera egokia izan zitekeela pentsatu da, hiztunei maila jaso bat irudikatzen laguntzeko. Gutxi gora-behera, 10 minutuko irakurketak izan dira¹⁶.

Behin datuak bilduta, horien azterketa egin da, Fonologia Naturalaren teoria oinarri hartuta. Fonologia Naturala D. Stampek 1960-1970eko hamarkadan sortutako teoria fonologikoa da (Stampe, 1969, 1979). Teoriaren eratze horretan P. Donegan autorearen ekarria ere ezin da aipatu gabe utzi (Donegan, 1995, 2002, 2013). Stampe eta Donegan, biak izan dira Fonologia Naturalaren funtsak zehaztu eta sendotu dituzten autore nagusiak (ikus, besteak beste, Donegan & Stampe, 1979, 2009). Euskararen

16 Bi hizkera-mailetako grabazioak egiteko, TASCAM DR-05X grabagailua erabili da, zeinak gure ikerketarako (eta azterketa akustikoa egiteko) grabazio kalitate egokia eskaintzen duen; .wav formatuan egin dira grabazioak.

alorrean ere badira lanak Fonologia Naturala oinarritzat dutenak; besteak beste, Oñederra (2002, 2023), Jauregi, O. (2007, 2008), Aizpurua (2024) eta Hurch (1988, 1996, 2006).

Fonologia Naturala teoria esplikatzailea da; hau da, aztergaia azaldu egin nahi da, ez da hizkuntza jakin baten fonologiaren deskribapena egin nahi (Maddieson, 2009, 132. or.). Fonologia Naturalaren aztergaia hizkuntzak ahozkoa izateari zor dion guztia da; hizketa bere osotasunean, alegia: «everything that language owes to the fact that it is spoken» (Donegan & Stampe, 1979, 128. or.). Aztergai horrek eremu handia (alderdi asko) hartzen du beregain; besteak beste, teoria fonologiko konbentzionala-goetan kanpo erakusgarritzat (*external evidence*) hartu eta teoriaren aztergaitik kanpora utzi izan diren zenbait alderdi kontuan hartzen dira teoria naturalean. Hizkuntza-jabekuntza, -tipologia, -diakronia, hizkuntzen irakaskuntza eta baita, beste zenbait alderdiren artean, hizkera-mailak ere hainbat teoriatan kanpo-erakusgarritzat ulertu izan dira eta, hortaz, teoriaren oinarri eta ikergetatik kanpo utzi dira; hizkuntzalaritza aplikatuaren eremuan izan dute leku behinena. Fonologia Naturelean, aldiz, alderdi horiek guztiek lekua dute aztergaiaren muinean, hizketa (ahoskera-gertakizunak) bere osotasunean nolakoa den azaltzeko esanguratsuak izan baitaitezke alderdi horiek¹⁷.

Teoria horretan analisiaren proposamenaren muinean dago hizkuntzen erabileraren alderdia eta, beraz, baita hizkera-mailak ere. Hori horrela, Fonologia Naturala teoria aproposa da gure ikerketarako, euskararen ahoskera eta hizkera-mailak lotuta aztertzeo aukera ematen du. Alderdi fonologikoak (euskararen ahoskera) alderdi soziologikoekin (hizkera-mailekin) lotuta aztertzea ahalbidetzen du hautatu den teoria fonologikoak.

Datuak antolatzeko, EBAZ araua hartu da erreferentziatzat; hau da, bertan agertzen diren bokalak, bokal-bilkurak, kontsonanteak eta kontsonante-bilkurak aztertu dira. Bi hizkera-mailetako ahoskerak erkatu dira, hizkera-mailaren arabera aldakortasunik topatzen den edo ez jakiteko eta, bereziki, arreta jarri da euskara etxean eta etxetik kanpo ikasi duten hiztunen arteko ahoskera aldeetan; maila zainduko jardunetan, EBAZ proposamenak betetzen diren edo ez ere adierazi da.

4. EMAITZAK

Euskara etxean ikasi duten eta ez duten hiztunen bi hizkera-mailetako ahoskerak aztertuta, bi joera nagusi topatu dira: hizkera-mailaren arabera, ahoskera aldatu egin dute batzuetan hiztunek eta beste batzuetan, berriz, ebakera bera erabili dute bi mailetan.

17 Artikuluaren luzera muga dela eta, ez dira Fonologia Naturalaren oinarritzko ideia eta alderdi gehiago azalduko, baina teoria fonologiko honen inguruan gehiago jakin nahi duenarentzat, besteak beste, Donegan eta Stampe (1979, 2009), Hurch (1988) eta Oñederra (2023) lanak gomendatzen dira. Horrekin batera, Fonologia Naturala euskararen hizkera-mailen arabera ahoskera-aldakortasuna aztertzeo zergatik izan daitekeen teoria aproposa ikusteko, Urreta (2022) lana gomendatzen da.

Hizkera-mailaren araberako ahoskera-aldakortasunari dagokionez, zenbaitetan aldeak topatu dira euskara etxean ikasitako hiztunen eta etxean ikasi ez duten hiztunen ahoskeren artean. Esan daiteke, oro har, euskara etxean ikasiek gehiagotan moldatzen dutela ahoskera hizkera-mailaren arabera; euskara etxean ikasi ez dutenek maizago darabilte ebakera bera bi mailetan. Joera horren erakusgarri dira, besteak beste, /ua/ bokal-bilkuraren ahoskera eta bokalarterko /b/, /d/, /g/, /r/ kontsonanteena.

4.1. /ua/ bokal-bilkura

Euskara etxean ikasi duten Ikaztegietakako eta Baigorriko hiztunek maila arduraga-bean askotan /ua/ bilkura ez dute ahoskera estandarrean legokiokeen moduan ebaki. ikaztegiatarrek [ue] ebaki dute maiz:

- (1) IK1: *bur[ue]*, *ostat[ue]*, *mund[ue]*, *dir[ue]*¹⁸.
 IK2: *ord[ue]*, *apust[ue]*, *teilat[ue]*, *mund[ue]*.
 IK3: *aparkament[ue]*, *ostat[ue]*, *arrisk[ue]*, *dir[ue]*.
 IK4: *ingur[ue]*, *ostat[ue]*, *moimend[ue]*, *meik[ue]*.

Kasu horretan, asimilazio bat gertatzen da; hau da, azkeneko bokala aurrean duen bokalaren itxitasunera hurbiltzen da. Horrela, itxitasunean ezberdinagoak ziren bokalak (/u/ eta /a/) antzekoago egiten dira. Euren arteko alde artikulatorioa eta akustikoa txikitu egiten da eta, era horretan, hiztunek ahalegin artikulatorio txikiagoa egin behar dute segmentu-bilkura ahoskatzeko. Ahoskagarritasunaren mesedetan gertatzen den bilakabidea da, hortaz (Donegan & Stampe, 1979, 142.-143. or.)¹⁹.

Zehazki, datuak kuantifikatu dira eta zenbatutako /ua/ bilkuretatik % 90eko maiztasunez [ue] ahoskatu dute hiztunek²⁰; [ua] ebakeraren erabilera-maiztasuna % 10ekoa baino ez da izan; azken horien kasuan, forma gehienak maileguak izan dira (*ig[ua]lak*, *kas[ua]lidadea*).

Baigorriarrek, berriz, [ja] ebaki dute maiz aztergai den bokal-bilkura:

- (2) BA1: *bur[ja]n*, *merkat[ja]*, *partit[ja]*, *konplikat[ja]*.
 BA2: *ingur[ja]n*, *lek[ja]n*, *sald[ja]k*, *berot[ja]k*.
 BA3: *gaindit[ja]*, *salbat[ja]*, *ezaut[ja]*, *xertat[ja]*.
 BA4: *gald[ja]*, *ord[ja]n*, *astebur[ja]n*, *aparkat[ja]k*.

18 Idazkera ortografikoan emango dira datuak, irakurketa errazteko asmoz. Soilik kasu bakoitzean hizpide den hotsa edo hots-bilkura transkribatuko da.

19 Aztergai den bokal-bilkura /ua/ denez, gure adibideetan bokal itxia [u] da, baina baliteke [i] ere izatea; izan ere, asimilazioa bokal itxien nolakotasunak eragindakoa da: *eg[ie]*, *herr[ie]* (IK1), *mend[ie]*, *guzt[ie]* (IK2), *zub[ie]*, *sagardoteg[ie]* (IK3), *biz[ie]*, *farmaz[ie]* (IK4).

20 Datuak kuantifikatzerakoan, hiztun bakoitzaren jarduneko lehen 30 /ua/ bilkurak hartu dira kontuan. Horrela, guztira 120 /ua/ bilkuraren ahoskerak izan dira kontuan azterketa kuantitatiboa egiteko.


/ua/ bilkura [ja] ahoskatzen denetan atzeko bokal itxiaren (/u/-ren) palatalizazioa gertatzen da; alegia, /u/ > [j] ahoskatzen da ondoren [a] bokala badator²¹. Lafonek (1937) jada artikulatu batean adierazi zuen /u/-ren palatalizazioa gertatzen zela ekialdeko euskal hizkeretan; artikulatuaren izenburuan bertan aipatzen du gertakari hori: «Tendance à la palatalisation de la sonante *u* dans les parlers Nor-Est». Aztergai dugun hots-ordezkatzearen berri sakonago izateko, Caminoren (2022) laneko 5.1.1. atala irakurtzea gomendatzen da.

Baigorriko hitzunen kasuan ere egin da datuen azterketa kuantitatiboa eta hemen ere maiztasun handienez /ua/ bilkura [ja] ahoskatu da; zehazki, % 59ko maiztasunez [ja] ebaki dute eta % 41ekoaz [ua] ahoskatu dute.

Maila zainduan, berriz, EBAZ araua beteta (II.b. araua), euskara etxean ikasi duten Ikaztegieta nahiz Baigorriko hitzunek [ua] ebaki dute beti (% 100) bokal-bilkura:

(3) Hitzun guztiek: *bur*[ua], *mod*[ua], *s*[ua].

Euskara etxean ikasitako hitzunek, beraz, hizkera-mailaren arabera aldatu egin dute euren ahoskera; kasu honetan, aldakortasuna norabide egokian gertatu da:



1. irudia. Euskara etxean ikasitako hitzunen /ua/ bilkuraren ahoskerak (Ikaztegieta eta Baigorrikoak) hizkera-maila arduragabe eta zainduan.

21 Hitzunek [ja] (ez [ia]) ahoskatzen dute, goranzko diptongoak euskal hitzetan ere ohikoak direlako Baigorriko hizkeran.

Euskara etxean ikasi ez duten bi herrietako hiztunek, aldiz, maila zaindian ez ezik, arduragabeen ere [ua] ebaki dute askotan, mailegutan ez ezik, baita euskal hitzetan ere:


- (4) IK5: *dir[ua], s[ua], mod[ua]*.
IK6: *bur[ua], ostat[ua], err[ua]*.
IK7: *libur[ua], s[ua], izenbur[ua]*.
IK8: *kat[ua], bur[ua], garrantzits[ua]*.

Datuen zenbaketa eginda, euskara etxean ikasi ez duten Ikaztegietao hiztunek maila arduragabeen soilik % 12ko maiztasunez ahoskatu dute [ue], gainerako guztietan (% 88) [ua] erabili dute. Baigorriko hiztunen joerak ere bat egiten du aipatu berri dugunarekin:

- (5) BA5: *ingur[ua]n, astebur[ua]n, medik[ua]k*.
BA6: *hart[ua], neg[ua], ord[ua]n*.
BA7: *motibat[ua], apartamend[ua]k, igerilek[ua]n*.
BA8: *haut[ua], hiribur[ua], konfinamend[ua]n*.


Euskara etxean ikasi ez duten Baigorriko hiztunen /ua/ bilkuraren [ja] eta [ua] ahoskeren maiztasun erabilerak aztertuta, % 73ko maiztasunez [ua] ahoskatu dute eta, aldiz, [ja] ebakerak soilik % 27ko maiztasun erabilera izan du.

Horrela, emaitzek erakusten dute euskara etxean ikasi ez duten hiztunek etxean ikasitakoek baino gutxiagotan darabiltzatela [ua] ez diren beste ahoskerak maila ardura- gabeen; [ue] Ikaztegietao kasuan eta [ja] Baigorrikoen kasuan. Are gehiago, badira euskara etxean ikasi ez duten hiztun batzuk (IK8 eta BA6) beti, hizkera-maila edozein dela ere, [ua] ahoskatu dutenak.



2. irudia. /ua/ bilkuraren ahoskerak (Ikaztegieta eta Baigorrikoak) hizkera-maila arduragabeen. Euskara etxean eta etxetik kanpo ikasitako hiztunen ebakeren erkaketa.

Datuak horrela, euskara etxean ikasi ez duten hiztunen jardunetan hizkera-mailaren arabeko aldakortasuna ez da euskara etxean ikasi dutenena bezain indartsua izan; hiztun batzuen kasuan, aldakortasunaren zantzurik ere ez da antzeman, bi mailetan ahoskera berak erabili baitituzte beti:



3. irudia. Euskara etxean ikasi ez duten hiztunen /ua/ bilkuraren ahoskerak (Ikaztegieta eta Baigorrikoak) hizkera-maila arduragabe eta zainduan.

4.2. Bokalarteko /b/, /d/, /g/, /r/ kontsonanteak

Bokalarteko /b/, /d/, /g/, /r/ kontsonanteen ahoskerari dagokionez ere, joera bera antzeman da. Euskara etxean ikasi duten bi hizkeretako hiztunek maila arduragabean ez dituzte zenbaitetan bokalarteko /b/, /d/, /g/, /r/ kontsonanteak ahoskatu. Ikaztegieta-tako hiztunen datuak dira ondokoak:

- (6) IK1: *proatzea* 'probatzea', *pixkat* 'pixka bat', *euki* 'eduki', *betianik* 'betidanik', *in* 'egin', *deuna* 'duguna', *denboa* 'denbora', *zien* 'ziren'.
IK2: *pixkat* 'pixka bat', *baukeu* 'badaukagu', *eo* 'edo', *eon* 'egon', *izuarri* 'izugarri', *oain* 'orain', *bea* 'bera'.
IK3: *earren* 'ederrean', *eukitze* 'edukitze', *eaten* 'edaten', *eun* 'egun', *launek* 'lagunek', *hoi* 'hori', *ai* 'ari'.
IK4: *eguarritan* 'eguberrietan', *bialtze* 'bidaltze', *meikue* 'medikua', *eur* 'egur', *ziun* 'zigun', *atea* 'atera', *geo* 'gero'.

Datuak kuantifikatu dira eta bokalarteko kontsonanteak % 78ko maiztasunez ez dira ahoskatu; % 22ko maiztasunez ahoskatu egin dira. Beraz, kopuruek erakusten

dute maila arduragabeen euskara etxean ikasitako Ikaztegietakako hiztunek askotan ez dituztela ahoskatu bokalarteko /b/, /d/, /g/, /t/²².

Baigorriko hiztunek ere zenbaitetan ez dituzte ebaki bokalarteko kontsonante horiek. Hain zuzen ere, % 47ko maiztasunez ez dituzte ahoskatu (% 53ko maiztasunez ebaki egin dituzte):

- (7) BA1: *hilaetez* 'hilabetez', *baut* 'badut', *muitu* 'mugitu', *in* 'egin', *beaz* 'beraz', *oai* 'orain'.
 BA2: *pixkat* 'pixka bat', *beatzi* 'bederatzi', *eo* 'edo', *eun* 'egun', *nausiak* 'nagusiak', *ai* 'ari', *delaik* 'delarik'.
 BA3: *hilaete* 'hilabete', *urteitut* 'urte ditut', *eoten* 'egoten', *ezautzen* 'ezautzen', *geoztik* 'geroztik', *mentuaz* 'menturaz'.
 BA4: *andanat* 'andana bat', *baakizu* 'badakizu', *beantei* 'berantegi', *Iruleiko* 'Irulegiko', *etxeat* 'etxerat', *gue* 'gure'.


Kontsonante horiek ahoskatzen ez direnean, herskari ahostunen kasuan, bi bilakabide gurutzatzen dira. Batetik, herskari ahostunen jarraitutzea gertatzen da; hau da, kontsonanteak ingurune jarraituan daude, bokalarlean zehazki, eta aldameneko bokalen jarraitutasunera (artikulatzaileek ez diote trabarik egiten aire-etorriari) asimilatzen dira, erabateko hersketa galdu egiten baitute, herskari izatetik hurbilkari izatera igarota (Romero, 1996, 103. or.): /b/ > [β] (*pixka* [β]at), /d/ > [ð] (*e*[ð]uki), /g/ > [ɣ] (*mu*[ɣ]itu). Bestetik, ondorengo urratsa (beti gertatzen ez dena), /t/ ttakaren kasuan bezala, hurbilkariaren kenketa gertatzea izan ohi da. Segmentu bat galtzen denez, segmentu-bilkuran zehar artikulatzaileek ez diote aire-etorriari etenik jarri beharrik eta, hortaz, ahoskatzeko errazago bihurtzen da bilkura hiztunentzat (Urreta, 2020, 646. or.).

Maila zainduan, berriz, bai Ikaztegietakako hiztunek, bai Baigorrikoek, beti (% 100) ebaki dituzte bokalarteko kontsonante horiek:


- (8) Hiztun guztiek: *na*[β] *armena*, *e*[ð] *o*, *e*[ɣ] *in*, *o*[r] *ain*.

Gauzak horrela, hizkera-mailaren araberako aldakortasuna norabide egokian gertatu da eta EBAZ araua (V.3. araua) bete dute hiztunek (4. irudia).


22 Datuak kontatzerakoan lehendabiziko 30 bokalarteko /b/, /d/, /g/, /t/ kontsonanteak hartu dira kontuan, kontsonante guztiak multzo berean hartu dira kontuan, ez da kontsonante bakoitzaren (kontsonanteak bereizita) erabilera maiztasuna neurtu. Aurrera begira, interesgarri litzateke bokalarteko kontsonante bakoitzaren galera maiztasuna neurtzea, hiztun guztien jardunak aztertuta, Urreta (2025) doktoretza-tesian ikusi zelako oparotasun handienaz galtzen den kontsonantea /t/ litzatekeela, ondoren /g/, /d/-k jarraituko lioke hurrena eta, azkenik, /b/-k.



4. irudia. Euskara etxean ikasitako hiztunen bokalarteko /b/, /d/, /g/, /t/ kontsonanteen ahoskerak (Ikaztegieta eta Baigorrikoak) hizkera-maila arduragabe eta zainduan.



5. irudia. Bokalarteko /b/, /d/, /g/, /t/ kontsonanteen ahoskerak (Ikaztegieta eta Baigorrikoak) hizkera-maila arduragabeen. Euskara etxean eta etxetik kanpo ikasitako hiztunen ebakeren erkaketa.



6. irudia. Euskara etxean ikasi ez duten hiztunen bokalarreko /b/, /d/, /g/, /t/ kontsonanteen ahoskerak (Ikaztegieta eta Baigorrikoak), hizkera-maila arduragabe eta zainduan.

Euskara etxean ikasi ez duten hiztunek, berriz, maila zainduan ez ezik, maila arduragabean ere ahoskatu egin dituzte maiz bokalarreko kontsonante horiek; kenketa gutxiago gertatu dira. Hain zuzen, 5. irudian ikus daitekeenez, Ikaztegietakoko hiztunek % 65eko maiztasunez ahoskatu egin dituzte bokalarreko /b/, /d/, /g/ eta /t/ kontsonanteak eta soilik % 35eko maiztasunez ez dituzte ebaki. Baigorriko hiztunen joera ere antzekoa izan da; % 83ko maiztasunez ahoskatu egin dituzte bokalarreko kontsonante horiek eta % 17ko maiztasunez bakarrik gertatu dira kenketak. Horrela, euskara etxean ikasi duten hiztunen maila arduragabeko jardunetan topatu ez diren ahoskera batzuk agertu dira; hau da, bokalarreko kontsonanteak ahoskatu egin dituzte askotan: *pixka* [β]at, *e*[ð]o, *e*[ɣ]in, *ho*[r]i.

Datu horiek kontuan hartuta, euskara etxean ikasi ez duten hiztunen ahoskeretan aldakortasun txikiagoa izan da, kasu gehiagotan erabili baitituzte ahoskera berak bi hizkera-mailetan (6. irudia).

Artikulu honetan aztertu ditugun ahoskerak (/ua/ bokal-bilkurarena eta bokalarreko /b/, /g/, /g/, /t/ kontsonanteena) kontuan izanda, ondorioztatu dugu, oro har, euskara etxean ikasitako hiztunek hizkera-mailaren arabera ahoskera aldakortasun handiagoa erakutsi dutela, euskara etxean ikasi ez duten hiztunek baino.

Euskara etxean ikasi ez duten hiztunen ahoskera-aldakortasuna urriagoa izatearren arrazoi posible batzuk ekarri nahi izan dira. Batetik, aldaera estandarren eragina legoke. Euskara etxean ikasi ez duten hiztunek, nagusiki, lehen urteetan behintzat, beste hizkuntza gutxituen kasuan bezala (ikus Nance & Moran, 2022; Palakurthy, 2022), irakaskuntza formalaren bidez bereganatu ohi dute euskara eta

aldaera estandarra izaten da bertan jaso ohi duten aldaera behinena. Horrela azal liteke gure laneko hiztunek askotan ahoskera zaindurako proposatzen den ebakera erabiltzea hizkera-maila edozein dela ere. Bestetik, idatziaren eragina legoke, irakaskuntzan idatziak izan ohi baitu lehentasuna (Harmer, 2007; Pacagnini, 2017; Pourhosein, 2016) eta, horrela, hiztunek letrak hartzen dituzte maiz ahoskatzeko oinarritzat; *bur<ua>* idazten denez, *bur[ua]* ahoskatzen dute (Urreta, 2022, 24. or.).

Hizkera-mailaren arabera aloskertasuna urriagoa izate horrek eragin dezake euskara etxean ikasi ez duten hiztunak baliabiderik gabe geratzea zenbait egoerari erantzuteko; kasu honetan lagunarteko egoerarako izan litzakete zailtasunak. Egoera hau gogoan izateko litzateke irakaskuntzari begira, hiztunek zenbait hizkera-mailari erantzuteko baliabideak lortzea baliatuzteke irakaskuntzaren erronka nagusietako bat (2.3. atala).

5. AURRERA BEGIRAKO GOGOETAK

Artikulu honetan euskararen aloskeran, hizkera-mailaren arabera, ager daitezkeen aldakortasuna izan da aztergai. Zehazki, arreta jarri da euskara etxean eta irakaskuntza formalaren bidez bereganatu duten hiztunen artean aldakortasunari dagokionez izan daitezkeen aldeetan. Horretarako, zenbait hiztunen hizkera-maila arduragabeko eta zainduko aloskerak aztertu dira eta ondorioztatu da, oro har, euskara etxean ikasitako hiztunek hizkera-mailaren arabera aloskera-aldakortasun handiagoa erakusten dutela, euskara etxean ikasi ez duten hiztunek baino. Euskara, nagusiki, eskolaren bidez ikasi duten hiztunen kasuan, aldakortasuna urriagoa izatearen arrazoi batzuk ere aurkeztu dira; bereziki, aldaera estandarren eta idatziaren eragina nabarmendu dira. Halaber, azpimarratu da euskara etxetik kanpo ikasi duten hiztunen artean aldakortasuna urriagoa izateak ondorioak izan ditzakeela hiztunen baliabide komunikatiboetan; zenbait egoerari (bereziki, lagunarteko egoerei) erantzuteko baliabiderik gabe gera daitezke, hizkera-mailaren arabera aldakortasuna hiztunaren adierazkertasunerako tresna baita.

Hiztunen aloskera-joerak kontuan izanda, esan daitezke euskara ikasteko modua aldagai emankorra eta oso kontuan izateko dela euskararen aloskeran hizkera-mailaren arabera izan daitezkeen aldakortasuna aztertzeko. Aurrera begirako ikerketetarako aintzat hartzeko aldagaia litzateke, lan honetan azaldu diren behin-behineko aloskera-joerak hiztun gehiagor osatutako taldeetan betetzen diren edo ez jakiteko. Horrekin batera, hiztunen zenbait aloskera akustikoki aztertzea interesgarri litzateke, belarriz hautemandakoa tresna bidez egiaztatu ahal izateko eta akustikoki hizkera-mailaren arabera izan daitezkeen aloskera-aldeak ezagutzeko.

Aurreratu dugun moduan, hizkera-mailaren arabera aldakortasuna hiztunen baliabide komunikatibo bat da, euren jarduna egoera bakoitzera egokitzea ahalbidetzen duena (Milroy, J. & Milroy, L., 1985/1999, 76. or.). Euskararen normalizazio bidean ezinbesteko litzateke, bada, hizkera-mailak garatzea eta zehaztea; alegia, hiztunek hizkera-mailen arabera aldakortasunerako bidea izatea, gaztelaniaren

eta frantsesaren ereduetatik ahal bezain babestuen. Hori horrela, euskararen hizkera-mailen gaineko ikerketak bereziki garrantzitsu lirateke hizkuntzaren une hone-tan, hizkuntzak historikoki izan ez duen hizkera-mailen arteko egituraketa orain ari baita antolatzen eta osatzen. Era berean, irakaskuntzak egiteko garrantzitsua beteko luke, etorkizunera begira, hiztunei euskaraz ahoskatzen irakatsi eta hizkera-mailen araberrako aldakortasunerako bidea ezagutzeko.

6. ERREFERENTZIAK

- Aizpurua, A. (2024). *Euskarazko bat-bateko bertsoen erritmoa: Silabatzea, erritmo-ereduak eta taldekatzea* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/69168>
- Artzelus, A. (2020). Garaziko euskararen azterketa diafasikoa. In E. Santazilia, D. Krajewska, E. Zuloaga & B. Ariztimuño (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte: ekarpen berriak euskararen ikerketari* (63.-80. or.). Nafarroako Gobernua. <https://doi.org/10.35462/fontes50urte.4>
- Bialystok, E. (1997). The structure of age: in search of barriers to second language acquisition. *Second Language Research*, 13(2), 116-137. <http://www.jstor.org/stable/43104537>
- Brown, H.D. (2006). *Principles of language learning and teaching*. Pearson Longman. (Jatorrizko obra 1980an argitaratua)
- Camino, I. (2022). *Aztergaiak Ipar Euskal Herriko euskararen berrikuntzez*. UPV/EHU.
- Camps, A. (1990). Los objetivos lingüísticos de la educación. In M. Siguan (koord.), *Lengua del alumno, lengua de la escuela (XII Seminario sobre «Educación y lenguas», Sitges, 1987)* (29.-44. or.). ICE; Universitat de Barcelona.
- Derwing, T.M., Munro, M.J., Foote, J.A., Waugh, E. & Fleming, J. (2014). Opening the window on comprehensible pronunciation after 19 years: a workplace training study. *Language Learning*, 64(3), 526-548. <https://doi.org/10.1111/lang.12053>
- Donegan, P. (1995). The innateness of phonemic perception. In V. Samiian & J. Schaeffer (arg.), *Proceedings of the 24th Western Conference on Linguistics 7* (59.-69. or.). Department of Linguistics, California State University.
- Donegan, P. (2002). Phonological processes and phonetic rules. In K. Dziubalska-Kołaczyk & J. Weckworth (arg.), *Future challenges for natural linguistics* (57.-81. or.). Lincom Europa.
- Donegan, P. (2013). Normal vowel development. In M.J. Ball & F.E. Gibbon (arg.), *Handbook of vowels and vowel disorders* (24.-60. or.). Psychology Press.
- Donegan, P. & Stampe, D. (1979). The study of Natural Phonology. In D.A. Dinnsen (arg.), *Current approaches to phonological theory* (126.-173. or.). Indiana University Press.
- Donegan, P. & Stampe, D. (2009). Hypotheses on natural phonology. *Poznań Studies in Contemporary Linguistics*, 45(1), 1-31. <https://doi.org/10.2478/v10010-009-0002-x>

- Dressler, W.U. (1985). *Morphonology: the dynamics of derivation*. Karoma Publishers.
- Durand, J. (2014). Corpora, variation, and phonology: an illustration from French liaison. In J. Durand, U. Gut & G. Kristoffersen (arg.), *The Oxford handbook of corpus phonology* (240.-264. or.). Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/oxfordhb/9780199571932.013.018>
- Etxeberria, P. (1994). Hizkera jasoaren ingurukoak. *Euskera*, 39(3), 1527-1532.
- Euskaltzaindia. (1968). Literatura euskeraren batasunari buruz Euskaltzaindiaren agiria. *Euskera*, 13, 250.
- Euskaltzaindia. (1998). Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua. *Euskera*, 43(2), 485-490.
- Eusko Jaurlaritza. (2013). V. *Inkesta Soziolinguistikoa: Euskal Herria, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Iparraldea*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua & Euskararen Erakunde Publikoa. (2016). VI. *inkesta soziolinguistikoa: euskararen eremu osoa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Gil Fernández, J. (2007). *Fonética para profesores de español: de la teoría a la práctica*. Arco Libros.
- Harmer, J. (2007). Teaching pronunciation. In *The practice of English language teaching* (248.-264. or.). Pearson Education Limited.
- Hernández-Campoy, J.M. (2016). *Sociolinguistic styles*. John Wiley & Sons.
- Hualde, J.I. & Zuazo, K. (2007). The standardization of the Basque language. *Language Problems and Language Planning*, 31(2), 143-168. <https://doi.org/10.1075/LPLP.31.2.04HUA>
- Hurch, B. (1988). Phonetics and phonology: phonology and phonetics. *Zeitschrift für Phonetik, Sprachwissenschaft und Kommunikationsforschung*, 41(3), 346-352.
- Hurch, B. (1996). Accentuations. In B. Hurch & R.A. Rhodes (arg.), *Natural phonology: the state of the art* (73.-96. or.). Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.1353/lan.1998.0155>
- Hurch, B. (2006). Natural Phonology. In *Encyclopedia of Language and Linguistics* (541.-543. or.). Elsevier. (Lehenengo edizioa 1994an argitaratua)
- Jaffe, A. (2015). Defining the new speaker: theoretical perspectives and learner trajectories. *International Journal of the Sociology of Language*, 231, 21-44. Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/ijsl-2014-0030>
- Jauregi, O. (2007). *Euskararen silaba: egitura eta historia* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Oroitz_Jauregi_TESIA.pdf
- Jauregi, O. (2008). Sobre la naturaleza de la sílaba y la estructuración de sus elementos en euskera. *ASJU*, 42, 337-352. <https://doi.org/10.1387/asju.5718>
- Jauregi, O. & Urreta, I. (2023). Variación en la norma estándar: el caso del euskera hablado. *Loquens*, 10(1-2), 1-10. <https://doi.org/10.3989/loquens.2023.097>
- Jauregi, P. (2003). *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian (II): hizkuntzazko jokaerak*. Lasarte-Oriako Udala. Euskarako Batzordea.
- Joos, M. (1967). *The five clocks*. Harcourt, Brace & World. (Jatorrizko obra 1961ean argitaratua)
- Joos, M. (1968). The isolation of styles. In J.A. Fishman (arg.), *Readings in the sociology of language* (185.-191. or.). Mouton de Gruyter.

- Kasstan, J.R. (2019). Emergent sociolinguistic variation in Severe Language Endangerment. *Language in Society*, 48(5), 685-720. <https://doi.org/10.1017/S0047404519000472>
- Labov, W. (1972). The isolation of contextual styles. In *Sociolinguistic patterns* (70.-109. or.). University of Pennsylvania Press.
- Labov, W. (2001). *Principles of linguistic change. Volume 2: Social factors*. Blackwell.
- Labov, W. (2006). *The social stratification of English in New York City*. Cambridge University Press. (Jatorrizko obra 1966an argitaratua)
- Lafon, R. (1937). Tendence à la palatalisation de la sonante *u* dans les parlers basques du Nord-Est. *Revue de Linguistique Romane*, 13, 73-82.
- Lantto, H. (2022). Analogy and similarity as a resource in new speaker styles of Basque. *International Journal of Bilingualism*, 26(5), 639-655. <https://doi.org/10.1177/13670069221110398>
- Lenneberg, E.H. (1967). *Biological foundations of language*. Wiley.
- Levis, J.M. (2018). *Intelligibility, oral communication, and the teaching of pronunciation*. Cambridge University Press.
- Llisterri, J. (1992). Speaking styles in speech research. *ELSNET/ESCA/SALT Workshop on integrating speech and natural language*. Dublin, uztailak 15-17. http://liceu.uab.es/~joaquim/publicacions/SpeakingStyles_92.pdf
- Maddieson, I. (2009). Phonology, naturalness and universals. *Poznań Studies in Contemporary Linguistics*, 45(1), 13-140. <https://doi.org/10.2478/v10010-009-0010-x>
- Maia, J. & Larrea, K. (2008). *Euskara batua eta euskalkiak Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan*. UPV/EHU.
- Milroy, J. (1994). The notion of «standard language» and its applicability to the study of Early Modern English pronunciation. In D. Stein & I. Tieken-Boon van Ostade (arg.), *Towards a standard English: 1600-1800* (19.-29. or.). Berlin-New York: Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110864281.19>
- Milroy, J. & Milroy, L. (1999). *Authority in language: investigating standard English*. Routledge. (Jatorrizko obra 1985ean argitaratua)
- Nance, C. (2020). Bilingual Language Exposure and the Peer Group: Acquiring Phonetics and Phonology in Gaelic Medium Education. *International Journal of Bilingualism*, 24(2), 360-375. <https://doi.org/10.1177/1367006919826872>
- Nance, C. & Moran, D. (2022). Place identity and authenticity in minority language revitalisation: Scottish Gaelic in Glasgow. *International Journal of Bilingualism*, 26(5), 542-563. <https://doi.org/10.1177/13670069221110382>
- Oñederra, M.L. (1994). Ahoskera araupezeaz II. *Euskera*, 39(2), 1589-1605.
- Oñederra, M.L. (2002). Palatalization revisited: bustidura adierazgarriaren estatusaz ohar batzuk. In X. Artiagoitia, P. Goenaga & J.A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. ASJU Gehigarriak 44 (499.-509. or.). UPV/EHU. <https://doi.org/10.1387/asju.9027>
- Oñederra, M.L. (2017). The standardisation of pronunciation: Basque today, between maintenance and variation. In I. Tieken-Boon van Ostade & C. Percy (arg.), *Prescription and tradition in language: establishing standards across time and space* (342.-354. or.). Multilingual Matters. <https://doi.org/10.21832/9781783096510-024>

- Oñederra, M.L. (2019). Ahoskera arautzeaz eta ikaste-irakasteaz. *Euskera*, 64(2-2), 939-957. <https://doi.org/10.59866/eia.v2i64.44>
- Oñederra, M.L. (2023). Fonologia, fonologiak: Fonologia Naturalari buruzko gogoetak J.I. Hualderen omenez. *ASJU*, 53(1-2), 739-755. <https://doi.org/10.1387/asju.25973>
- Oñederra, M.L., Jauregi, O. & Epelde, I. (2014). Hitzunaren fonema inbentarioa eta elebitasun goiztiarra: euskara gehi frantsesa vs. euskara gehi gaztelania. *Lapurdum*, 18, 75-95. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.2504>
- Oñederra, M.L., Elordui, A., Epelde, I., Etxeberria, P., Jauregi, O. & Salaberria, J. (2015). Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordearen txostena (Ahoskerak axola du). *Euskera*, 60(2), 499-531. <https://doi.org/10.59866/eia.v60i2.130>
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Urla, J. & Uranga, B. (2013). Hitzun berrien hizkuntza-identitatea: «nolako euskalduna naiz?». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 87-88(2-3), 151-170.
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Urla, J. (2016). *Euskal hitzun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Deustuko Unibertsitatea & BizkaiLab.
- Pacagnini, A. (2017). La enseñanza de la fonética y la fonología en la clase de ELSE. *SIGNOS ELE*, 11, 1-4.
- Palakurthy, K. (2022). New speakers and language change in Diné Bizaad (Navajo). *International Journal of Bilingualism*, 26(5), 601-619. <https://doi.org/10.1177/13670069221110400>
- Pato, E. & Molinié, L. (2009). La pronunciación del español en estudiantes francófonos: dificultades y métodos de corrección. *Tinkuy*, 11, 167-185.
- Pourhosein, A. (2016). English pronunciation instruction: a literature review. *International Journal of Research in English Education*, 1(1), 1-6. <http://ijreeonline.com/article-1-21-en.html>
- Ramallo, F. (2013). Neofalantismo. In E. Gugenberger, H. Monteagudo & G. Rey-Doval (arg.), *Contacto de lenguas, hibrididad, cambio: contextos, procesos e consecuencias* (245.-258. or.). Consello da Cultura Galega.
- Romero, J. (1996). Articulatory blending of lingual gestures. *Journal of Phonetics*, 24, 99-111. <https://doi.org/10.1006/jpho.1996.0007>
- Scovel, T. (2000). «The younger, the better» myth and bilingual education. In R.D. González & I. Melis (arg.), *Language ideologies: critical perspectives on the official English movement* (114.-136. or.). Lawrence Erlbaum Associates.
- Siguan, M. (1990). El lenguaje en la escuela. In M. Siguan (koord.), *Lengua del alumno, lengua de la escuela (XII Seminario sobre «Educación y lenguas», Sitges, 1987)*. ICE, Universitat de Barcelona, 9-28.
- Singleton, D. & Ryan, L. (2004). *Language acquisition: the age factor*. Multilingual Matters.
- Stampe, D. (1969). The acquisition of phonetic representation. In R.I. Binnick, A. Davidson, G.M. Green & J.L. Morgan (arg.), *Papers from the fifth regional meeting of the Chicago Linguistic Society* (443.-454. or.). Chicago Linguistic Society.
- Stampe, D. (1979). *A dissertation on Natural Phonology*. Garland Publishing Company.

- Urreta, I. (2020). Euskararen ahoskera hizkera-maila ezberdinetan: aldagarritasuna aztertzen. *Euskera*, 65(2), 625-657. <https://doi.org/10.59866/eia.v2i65.40>
- Urreta, I. (2022). Euskararen ahoskera eta hizkera-mailak: Fonologia Naturaletik hurbilpen bat. In A. Arriortua, A. Lizardi, S. Monforte, L. Vela-Plo (arg.), *Kimu berriak euskal hizkuntzalaritzan* (11.-31. or.). UEU.
- Urreta, I. (2025). *Euskararen ahoskera eta hizkera-mailak aztertzen* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/76301>
- Usó, L. (2008). La enseñanza de la pronunciación en LE: algunas consideraciones a tener en cuenta. *PHONICA*, 4, 104-130.
- Wolfram, W. (2002). Language death and dying. In J.K. Chambers, P. Trudgill & N. Schilling-Estes (arg.), *The Handbook of language variation and change* (764.-787. or.). Blackwell.
- Zuazo, K. (2006). *Euskara batua: ezina ekinez egina*. Elkar. (Jatorrizko obra 2005ean argitaratua)